

EUSKO TXARTELA LEHIAKETA PRENTSA TXOSTENA

ZER ?

Eusko txartelarentzat izen berria eta irudi berria proposatu

NORK ?

Izen eta irudi proposamena: edonork

Bozkatzea: soilik Euskal Monetako kideek eta profesionalez osaturiko epaimahaiak

NOIZ ?

Apirilaren 3tik 15a arte izena eta sorkuntza grafikoen proposamenei deialdia

Izenarentzat bozka apirilaren 18an, txartelaren irudiarentzat apirilaren 18tik 30a arte

Non ?

Izenaren bozkatzea apirilaren 18an iraganen den biltzar nagusian egingen dute kideek. Irudia hautatzeko bozken %50a kideek beteko dute aldaguneetan, edo helbide elektronikoetan jasoko duten inprimakia betez, eta beste %50a Euskal Herriko profesionalez osaturiko epaimahaiak beteko du (laborariak, artisauak, komertzantak, elkarteak, artistak...)

NOLA ?

Emaileraz info@euskalmoneta.org edo kontaktu orriaren bidez euskalmoneta.org_gunean

LEHIAKETAREN EGUTEGI ZEHATZA

EGUNAK	EUSKO LEHIAKETAREN ETAPAK	INFO GEHIGARRIAK
03/04	Prentsaurrekoa Lehiaketaren abiatzea (izena+irudia)	
03-15 /04	Eusko txartelarentzat izen ideien lehiaketa Guztiei irekia Euskal Monetak biltzen ditu proposamenak	Maila info@euskalmoneta.org Tel 05.33.47.54.11 Kontaktu orria euskalmoneta.org_gunean
03-15 /04	Eusko txartelaren irudiarentzat sorkuntza grafikoaren lehiaketa. Guztiei irekia. Euskal Monetak biltzen ditu proposamenak	Maila info@euskalmoneta.org
18/04	Kideen bozka eguna txartelaren izenarentzat	2015/04/18 BN Uztaritze
18/04	Gidaritza Batzordeak aukeraturiko zazpi irudien aurkezpena kideei. Irudia aukeratzeko bozkatzeko epea zabalik kideentzat	2015/04/18 BN Uztaritze
30/04	Kideen bozkatzeko garaia amaiara irudiarentzat	
04-06/05	Aukeraturiko sorkuntzen artean epaimahaiaren bozka	
10/05	Irudiaren lehiaketa irabazi duenaren berri ematea	Herri Urrats



LEHIAKETAREN AURKEZPENA

2013an, Euskoa, lekuko euskal moneta sustatu duen Euskal Moneta elkarteak orori irekitako lehiaketa bat antolatzen du kaleratzekotan den kide txartel magnetikoaren izena eta irudia aukeratzeko. Kide txartel hori, 2015ean, ordainketak egiteko txartela bilakatuko da, elkarteak daraman moneta elektronikoaren proiektua lagunduz.

Txartel magnetikoarentzat izen eta irudi ideiak proposatzea da lehiaketaren helburua. Elkarteko bulegoak zazpi izen eta zazpi sorkuntza grafiko aukeratu ditu eta kideei bozkaraziko die (7 Euskal Herriko zazpi probintzientzat).

Eusko kideek gehien gustukoa duten izenarentzat bozkatzen ahalko dute 2015eko apirilaren 18an izanen den biltzar nagusian.

Hautaturiko sorkuntza grafikoak biltzar nagusi horretan erakutsiko dira. Ondotik, kideek apirilaren 30a arteko epea izango dute gehien gustukoa duten irudiaren alde bozkatzeko. Bozka egiten ahalko da aldaguneetan bozka paper batzuen bidez, kideei emailaz bidali zaien inprimaki elektronikoa betez, edo emailaz info@euskalmoneta.org.

Ondotik, profesional ez osaturiko epaimahai batek proposaturiko sorkuntzen artean bat aukeratu du.

Kideen bozka %50a balioko du, eta epaimahaiarena beste %50a.

Eusko ordainketa txartelarentzat sorkuntza grafiko irabazlea maiatzaren 10n Herri Urratsen iragarriko da.

Eusko numerikoa 2015 urtearen bukaeran kaleratu beharko genuke (kontuak euskotan, profesional zein partikularrentzat kontu batetik beste batera transferentziak egin, eta, komertzianteei txartelarekin ordaindu). Eusko billeteak izango dira beti. Euskoetan ordainketak hobetu nahi dira moneta elektrobikoarekin eguneroko transakzioak, eta profesionalen eta hornitzaileen artean, edo baita saltegietan egiten diren kopuru handiko ordainketak erraztuz.



Lehiaketan nola parte hartu?

IZENA

Norberak izen bat edo gehiago proposatu ditzake Eusko txartelarentzat hauen bidez:

- Eusko webgunearen kontaktu orria betez www.euskalmoneta.org/contact
- mailez info@euskalmoneta.org
- telefonoz 05.33.47.54.11.

IRUDIA

Irudia sortzeko lehiaketa guztiei zabaldua da. Parte hartzaile bakoitzak gehienik 3 irudi bidali ditzazke. Sorkuntza bidaltzeko epemuga apirilaren 15a 23ak59etan da.

Betebehar teknikoak eta deialdiaren kuadroa aurkezten duen baldintza agiria elkaratearen internet orrian eskuragarri da zuzenean eta deskargatu daiteke. Interesatuak diren grafistak eskatu diezagukete zuzenean mezu bat bidaliz info@euskalmoneta.org helbidera.

INFORMAZIO PRAKTIKOAK

Euskal Moneta elkaratearen Biltzar nagusia : Apirilaren 18a, larunbata 9etan, Lapurdi gelan Uztaritzen

Kidetu edo kidetza berritu: www.euskalmoneta.org

Eusko aldaguneen zerrenda

Jarraitu Euskoa sare sozialetan !

Facebook : www.facebook.com/euskoa

Twitter : twitter.com/euskalmoneta